

2023ko urtarrilaren 1ean, Euskal AEko enplegatuak % 1,8 gehitu ziren, enpresa-kopuruak behera egin arren

Hamar enplegu berritik ia zazpi emakumeei dagozkie

Eustaten datuen arabera, 2023ko urtarrilaren 1ean 149.070 enpresa zeuden Euskal Autonomia Erkidegoko jarduera-sektoreetan, hau da, aurreko urteetan baino 2.018 enpresa gutxiago (-%1,4). Enpresa horiek 166.587 establezimendutan jarduten zuten (fabrikak, dendak, bulegoak...), eta, hala eta guztiz ere, langile enplegatuen kopurua %1,8 igo zen. Lau sektoreetan enplegua batez bestekoaren gainetik hazi zen: *Informazioa eta komunikazioak* (%4,8), *Jarduera artistikoak eta beste zerbitzuak* (%3,1), *Jarduera profesional eta lagungarriak* (%2,9) eta *Eraikuntza* (%2,2).

Landunen kopuruan jaitsierak izan dituzten sektoreen artean honako hauek nabarmentzen dira: *Finantza jarduerak eta aseguruak* (%2,8 gutxiago), *Higiezinak* (%2,1 gutxiago) eta *Nekazaritza, abeltzaintza eta arrantza* (%2,0 gutxiago).

Euskal AEko enplegatuen banaketa ehunekotan eta urte arteko aldakuntza jarduera-adarren arabera (A10) lurralde historikoari jarraiki. 2023/01/01

	Euskal AE		Araba/Álava		Bizkaia		Gipuzkoa	
	Pertsona enplegatuak	Aldak. %	Pertsona enplegatuak	Aldak. %	Pertsona enplegatuak	Aldak. %	Pertsona enplegatuak	Aldak. %
Guztira	100,0	1,8	100,0	2,0	100,0	1,7	100,0	1,8
Nekazaritza, abeltzaintza, arrantza	2,0	-2,0	1,5	1,2	2,6	-1,7	1,9	-5,3
Industria, energia, saneamendua	16,9	1,5	20,7	-0,1	15,3	3,6	16,8	0,4
Eraikuntza	2,8	2,2	2,9	2,0	2,9	2,5	2,6	1,5
Merkataritza, garraioa, ostalaritza	4,0	1,4	4,4	2,8	3,8	0,6	4,1	2,0
Informazioa eta komunikazioak	6,9	4,8	6,1	3,6	7,8	5,1	5,4	4,4
Finantza jarduerak eta aseguruak	3,6	-2,8	3,0	-1,7	4,1	-2,7	3,1	-3,6
Higiezinak	1,7	-2,1	2,1	-2,6	1,7	-1,7	1,6	-2,5
Jarduera profesionalak eta lagungarriak	5,0	2,9	5,2	7,2	5,4	1,0	4,3	4,7
Adm. publik. hezkuntza, osasungintza	11,5	1,7	15,4	1,1	10,9	1,8	10,8	2,0
Arte jarduerak eta beste zerbitzu batzuk	2,9	3,1	3,1	4,1	2,8	3,5	2,9	1,9


Data 2023ko Azaroaren 29a

Iturria: Eustat. Jarduera Ekonomikoen Gidazerrenda

Egiturari dagokionez, sektorerik ugariena, establezimendu kopuruaren arabera, *Merkataritza, garraioa eta ostalaritza* izan zen (%35,4). Ondoren *Jarduera profesional eta lagungarriak* (%16,3) eta, gero, *Eraikuntza eta Administrazio publikoa, hezkuntza eta osasuna* (%11,8).

Establezimenduen tamainaren arabera banaketa aurreko urtekoen oso antzekoa izan zen. Batez beste 50 langile edo gehiago dituzten establezimenduak 2.609 baino ez ziren, guztizkoaren %1,6, nahiz eta, oro har, enplegatuen guztizkoaren %42,1 okupatzen zuten. Hala ere, 119.809 establezimendu, ia hiru laurden, tamaina txikikoak ziren (3 langile baino gutxiago) eta langile guztien %15,5 biltzen zuten. Tamaina txikiko establezimendu horietan kontzentratu da enplegu-galera, 3.153 gutxiago. Enplegua, aldiz, 50 langile eta gehiagoko eta 20 eta 49 bitarteko geruzetan hazi zen gehien, 12.065 eta 4.355 enplegu irabazi baitzituzten, hurrenez hurren.

Euskal AEn enplegatuten eta establezimendu kopuruaren banaketa, jardueradarraren arabera (A10). 2023/01/01



Iturria: Eustat. Jarduera ekonomikoen direktorioa

Establezimenduen batez besteko tamainari dagokionez, jardueradarraren arabera, enplegatuen kontzentrazio handiena *Industria, energia eta saneamenduen* sektorean izan zen, 16,9ko batez besteko tamainarekin Euskal AE osoan. Araba 20,7 pertsonarekin nabarmendu zen; Bizkaian eta Gipuzkoan, berriz, 15,3 eta 16,8 pertsonakoa izan zen batez besteko tamaina, hurrenez hurren.

Euskal AEko enplegatuen banaketa ehunekotan, jarduera-adarren arabera (A10), lurralde historikoari eta sexuari jarraiki. 2023/01/01

	Euskal AE		Araba/Álava		Bizkaia		Gipuzkoa	
	Gizonak	Emakumeak	Gizonak	Emakumeak	Gizonak	Emakumeak	Gizonak	Emakumeak
Guztira	55,0	45,0	56,5	43,5	54,5	45,5	55,1	44,9
Nekazaritza, abeltzaintza, arrantza	79,2	20,8	78,4	21,6	82,4	17,6	75,5	24,5
Industria, energia, saneamendua	78,7	21,3	79,1	20,9	79,1	20,9	78,2	21,8
Eraikuntza	89,2	10,8	88,8	11,2	89,0	11,0	89,7	10,3
Merkataritza, garraioa, ostalaritza	53,6	46,4	54,1	45,9	54,2	45,8	52,6	47,4
Informazioa eta komunikazioak	63,7	36,3	65,0	35,0	63,7	36,3	63,3	36,7
Finantza jarduerak eta aseguruak	43,4	56,6	43,4	56,6	44,3	55,7	41,6	58,4
Hilgiezinen jarduerak	46,2	53,8	40,8	59,2	46,1	53,9	48,0	52,0
Jarduera profesionalak eta lagungarriak	50,1	49,9	51,5	48,5	50,2	49,8	49,1	50,9
Adm. publik. hezkuntza, osasungintza	32,8	67,2	33,6	66,4	33,3	66,7	31,5	68,5
Arte jarduerak eta beste zerbitzu batzuk	45,4	54,6	45,1	54,9	46,4	53,6	44,2	55,8

Data 2023ko Azaroaren 29a

Iturria: Eustat, Jarduera Ekonomikoen Gidazerrenda

Sexuaren arabera, Euskal AEko enplegatuen %45,0 emakumeak izan ziren 2022an, aurreko urtean baino puntu erdi gehiago. Sektore feminizatuenak *Osasun jarduerak eta gizarte zerbitzuak* (%77,8 emakumeak), *Hezkuntza* (%67,4) eta *Zerbitzuak* (%62,6) izan ziren. Enplegua, aldiz, gehienbat maskulinoa da *Eraikuntzan* (%89,2) eta *Industrian eta Lehen Sektorean* (%79 inguru bi kasuetan).

ENPRESAK

Establezimenduen jardueren euskarri diren enpresa guztietatik (unitate juridikoak), %97,0k Euskal AEn zuten egoitza, eta gainerako %3ak (4.469) Estatuko gainerako lekuetan. 100 langile edo gehiagoko artean, %78,0k zuen egoitza erkidegoan. Euskal AEn egoitza duten enpresen erdia baino gehiago Bizkaian dago: 74.951 enpresa (%51,8), Gipuzkoan 49.205 (%34,0) eta Araban 20.445 (%14,2).


Enpresen batez besteko tamaina egonkor mantendu da: 6,2 langile enpresako eta 5,6 establezimendu bakoitzeko. Pertsona fisikoaren forma juridikoa duten titularrek 1,4 langile baino ez zituzten izan, bai enpresako, bai establezimenduko; gainerako forma juridikoen kasuan, batez besteko horiek 13,2 eta 10,5 ziren, hurrenez hurren.

ENPRESA-DEMOGRAFIA

Enpresen adinari dagokionez, euskal enpresen gaztetasuna azpimarratu behar da. Euskal AEn jardun zuten enpresen %30,6k bost urte edo gutxiagoko antzinatasuna zuen, eta %13,5era iristen zen bi urte edo gutxiagoko ehunekoa.

Establezimenduko jaiotza- eta heriotzak. Euskal AE

Ehunekoa stockaren gainean



Iturria: Eustat. Enpresak sortzeari eta ixteari buruzko estatistika

Txandakatzeari dagokionez, eta establezimenduen altak eta bajak kontuan hartuta, 2022an 13.211 establezimenduk jarduera hasi eta 15.107k jarduera utzi zuten, 1.896 gutxiago. Establezimenduen jaiotza-tasa (sortutakoen eta stockaren arteko zatidura) %7,9koa izan zen eta heriotza-tasa %9,1ekoa. Ondorioz, hazkunde-tasa garbia negatiboa izan zen (%-1,1).

Txandakatze handiena *Merkataritza, garraio eta ostalaritza*n gertatun da, alta guztien %27,9 eta baja guztien %31,8; *Jarduera profesional eta lagungarrietan*, alten %18,4 eta baje %18,8; eta *Eraikuntzan*, alten %16,9 eta baje %17,7.

Demografia nortasun juridikoaren arabera aztertzean, Pertsona fisikoaren formularekin sortutako establezimenduak nabarmentzen dira: alten %68,8 eta baje %63,2 eragin zituzten.

Establezimenduen demografia Euskal AEn. 2023/01/01

	Altak	Irteerak
Guztira	13.211	15.107
Jardueraren arabera		
Nekazaritza, abeltzaintza, arrantza	212	246
Industria, energia, saneamendua	576	744
Eraikuntza	2.228	2.679
Merkataritza, garraioa, ostalaritza	3.688	4.809
Informazioa eta komunikazioak	460	463
Finantza jarduerak eta aseguruak	292	467
Higiezin jarduerak	261	398
Jardura profesionalak eta lagungarriak	2.430	2.842
Adm. publik. hezkuntza, osasungintza	1.685	1.382
Arte jarduerak eta beste zerbitzu batzuk	1.379	1.077
Nortasun juridikoaren arabera		
Pertsona fisikoa	9.090	9.546
Akziokako elkarteak	227	462
Elkarte mugatuak	2.971	4.023
Bestelako elkarteak	862	1.025
Bestelako lege-formak	61	51

Data 2023ko Azaroaren 29a

Iturria: Eustat. Enpresak sortzeari eta itxeari buruzko estatistika

Enplegatuei dagokienez, pertsona fisikoaren forma juridikoa duten establezimenduek establezimendu berrietan enplegatutako pertsonen %39,1 hartu zuten, eta desagertutako establezimenduen %42,5. Sozietate mugatuak ere nabarmentzen dira, alta emandako establezimenduetan pertsonen %38,1ekin eta baja emandako establezimenduetan %35,0ekin.

Establezimenduen tamainaren arabera, estratu dinamikoa 2 langile edo gutxiagokoa da, ohi bezala. Berez, alta guztien %90,2 eta baja guztien %91,6 erregistratzen ditu.

Aitzitik, 50 langile edo gehiago dituzten establezimenduen estratuak alten %0,2 eta baje %0,1 baino ez dira. Aldiz, establezimendu berrietan enplegatutako pertsona guztien %13,6 hartzen du, eta establezimenduetako baje %6,6.

Informazio gehiago:

Eustat - Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

C/ Donostia-San Sebastián, 1 01010 Vitoria-Gasteiz

Prentsa-zerbitzua: servicioprensa@eustat.eus Tlf: 945 01 75 62